



ELEKTRARIDE

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Argi dago bezeroak gure enpresaren oinarria izango direla, enpresa elikatuko dute eta. Horregatik, zerbitzu hobereana eskaintzea dugu helburu, beraz, bezeroekin izango ditugun harremanak finkatu behar ditugu. Bezeroekin ezarri nahi dugun harremana konfiantzan eta gertutasunean oinarrituko dugu. Horrez gain, gure zerbitzua erraza eta azkarra izatea nahi dugu. Hau guztia lortzeko; zerbitzu automatizatua eta laguntza pertsonala eskainiko dugu, denon beharretara edota ahalmenetara egokintzen diren aukerak direlako.

Egia da gure zerbitzuak ez duela hainbesteko harremanik behar bezeroekin baina erraztasuna eta azkartasuna zerbitzu automatizatuaren bidez transmititu nahi dugu, harremana errazagoa izango da aplikazioaren bitartez egingo dugulako. Honetan, informazio guztia eskainiko dugu, bezeroek arazorik ez izateko eta beraien eskuetan informazio guztia eduki ahal izateko. Aplikazio honetan atal bat egongo da non beraien iritzia emateko eta baloratzeko aukera izango duten. Horrela, beste bezeroek buruan ideia bat egitea lortuko genuke, beraien ere informatuak egon daitezzen zerbitzuari buruz. Gainera, guk balorazio horiekin zer hobekuntza edo aldaketa egin ditzazkegun jakingo dugu.

Laguntza pertsonalari erreferentzia eginez, patinetea eskuratzeko informazioa nahi badute, laguntza pertsonal bat eskainiko dugu; bezeroaren eta enpresako kide baten harreman zuzenago bat. Laguntza pertsonal hori, telefonoaren bidezkoa edo aplikazioan laguntza atal baten bitartez izango da; horrekin, bezeroei informazio guztia eskuratzeko eta zalantza guztiak argitzeko aukera emango diegu. Lehen aipatu bezala, telefonoaren bidezkoa, teknologia gustuko ez duten horientzat errazagoa izateko.

Badakigu, hainbat arrazoi daudela bezero eta enpresaren arteko harreman bat mantentzeko. Gure kasuan, bi motibazio nagusi daude; alde batetik, bezero berriak lortzea bakoitzari hobekien egokitzen zaien plana eskeiniz eta horrela baliabide berriak emanez. Bestetik, gure enpresak dauzkan bezeroak eustea; gure proiektua hobetzen jarrai dezan, beti ere gure helburua lortuz eta horrekin, gure enpresaren salmenta kopurua handituz. Honekin gure produktua hobetzea lortuko genuke gure bezeroen nahiei ahotsa emanez eta egon daitezken arazo teknikoekin lagunduz.



ELEKTRARIDE

Laburbilduz, harreman hauekin gure helburuak lortzea espero dugu, hau da, gure enpresa handitzen jarraitzea bezeroekin batera. Horrez gain, guretzat beharrezkoa da konfiantza eta gertutasuna transmititzea, eta hau pertsonalki lagunduz lortuko genuke, bezero bakoitzari zerbitzua egokituz. Bestalde, zerbitzu automatizatuekin ez da batere zaila izango erabiltzea, eta gainera, teknologiarekin ondo eramaten ez direnak, erraz erabiltzeko gaitasuna edukiko dute. Honekin guztiarekin, bezero gehiago erakartzea lortuko dugulakoan gaude, baina, ahaztu gabe, auzi garrantzitsua dela bezeroak mantentzea. Guretzat ezinbestekoa da beraien iritzia, hoiekin, etengabe hobetzen ari gara eta hainbat arazori irtenbidea aurkitzen diogu, gure balio proposamena hobetuz.